



Basoaren hornidura-zerbitzua **zura** eta beste erabilera tradizional batzuk

I- Hornidura-zerbitzuak

Ekosistemetatik datozen oinarritzko baliabideak eta lehengaiak ematen dituzten zerbitzuak dira.

Zerbitzu hauek bi bloketan egituratzen dira, euren jatorriaren arabera; bloke batean zuhaitzaren enborretik zuzenean ateratzen direnak egongo lirateke, eta bestean zuhaitzak berak edo basoak -orokorrean- ematen dituenak.


1- Zuretik datozen zerbitzuak

Zura

Zur eta sutarako egurraren ekoizpena baso-sektorearen jardura komertzial nagusia da. Haien aprobetxamenduak diru-sarrerak ematen dizkie mendien jabe publiko zein pribatuei, eta basoek ekonomia nazionaleri egiten dieten osoko ekarpenaren adierazle bat da.

Basotik ateratako zuraren erabilera nagusiak honako hauek dira:

Zuraren zerraketa: Zerratze-industriaren bitartez hainbat produktu egiteko behar den oholak, oholtzarra edo taula eskuratzen dira; produktu horiek, besteak beste, honako hauek dira: altzariak, zurgintzako produktuak, eraikuntzarako elementuak, bilgarriak, paletak, habe trinkoak edo laminatuak, kofratzeko taula, eta abar.



. Zerratze-industriak geroago hainbat produktu egiteko erabiltzen diren mota honetako oholak sortzen ditu.



Zura da altzariak eta zurgintzako produktuak ekoizteko gure historian gehien erabili den materiala, eta gaur egun ere horrela izaten jarraitzen du.



Paletak eta bilgarriak zuraren erabilera garrantzitsuenetako bat dira: oso material efiziente eta moldagarria da, eta gainera jasangarritasun maila handia ematen dio salgaien garraioari, mundu osoan.



Herrialde askotan erabiltzen da etxe eta ekipamenduak eraikitzeko. Zura eraikuntzaren egituraren bertan erabil daiteke, hainbat formatan: CLT panelak, habeak edo bilbadura arinak, fatxadetan, leihoetan, lurzoruetan, eta abar.



Ore eta paperaren fabrikazioa: Zurezko zuntza era guztietako paper eta kartoiaren oinarria da eta egunero erabiltzen ditugun produktueta aplikatzen da: liburuak, egunkariak, erabilera higieniko eta sanitarioak, kutxak, zakuak, eta abar.



Paper/kartoi gordinezko bobinak, hainbat produktu ekoizteko.

Kortxoa

Kortxoa artelatzen (*Quercus suber*) azala da. Zuhaitz hori gai da azal hori birsortzeko, enborretik kendu eta gero, eta horrek ahalbidetzen du zuhaitza mantentzearekin bateragarria den erabilera bat egitea. Kortxoaren propietateek (isolatzailea, iragazgaitza eta flotagarria izatea) material preziatu bihurtzen dute etxebizitzaren estalketarako eta arrantza- edo nabigazio-tresnetarako. Hala eta guztiz ere, kortxoa ezagunagoa da botilen tapoiak egiteko duen balio handiagatik, batez ere ardoaren kasuan.

Kortxoa ateratzeko operazioari zuritze-lana deitzen zaio, eta langile espezializatuek egin behar dute, sasoi konkretu batean (maiatza – abuztua), hau da, kortxoaren panak erauzi daitezkeenean ama-geruzari kalterik egin gabe. Zuhaitzak sortzen duen lehenengo kortxoa bornizo deitzen da, eta ez da egokia tapoiak ekoizteko. Zuhaitzaren lehenengo zuritzearen ostean, bigarren kortxoa sortzen da, eta hortik aurrera ekoizpenerako kortxoa kalitate handiagokoa da. Zuritze-lanen arteko denbora 11 eta 13 urte bitartekoa da, hau da, zuritze bat egin ostean denbora hori pasatu behar da hurrengoa egin arte.

Espainia munduko bigarren herrialdea da artelatze-eremu naturalen azalerari eta kortxoaren ekoizpenari dagokienez. Izan ere, beraren aurretik Portugal bakarrik dago. Espainiako produktibitatea honako hau da: 200-225 kg kortxo, gutxi gorabehera, hektarea eta urte bakoitzeko.



Artelatzaari azala kentzea eta azken produktua.



Erretxina

Koniferoek (pinuek, izeiek...) sortzen duten substantzia bat da, erretxina-kanaletatik kanporantz jariatzen dena zurean ebakidurak egitean. Tanta txikien formaz agertzen da, likatsua eta iraunkorra da, eta bere usain biziagatik nabarmentzen da. Astiro irristatzen da landutako azaleratik, ontzi batean jasotzen den arte.

Erretxina pinuaren espezie batzuetatik eskuratu daiteke. Iberiar Penintsulan, erretxina itsas pinutik (*Pinus pinaster* Ait.) hartzen da gehienbat.

Erretxinaren arloan esaten da erretxinak izena aldatu eta miera deitzera pasatzen dela zuhaitzetik ateratzen denean. Lantegian destilazio-prozesu bat egiten zaio, eta hortik bi produktu ateratzen dira: trementina-esentzia eta kolofonia.

Trementina-esentziaren aplikazio garrantzitsuena lehengaien ekoizpena da, honako produktu hauen fabrikaziorako: lurrinak, elikagai-aromak, bitaminak eta erretxina politerpenikoak.

Kolofonia, berriz, honako produktu edo prozesu hauetan erabiltzen da: inprimatze-tinten fabrikazioan; paperaren akabera erabiltzeko "saltsetan"; emulsionatzaile gisa kautxu sintetikoaren fabrikazioan; itsasgarrietan; oinarritzko goma gisa txikleak, edariak, depilazio-produktuak, xaboiak, pinturak eta bestelakoak fabrikatzeko.

Gaur egun, erretxinazko produktuen ordez beste substantzia batzuk erabiltzen dira zenbait aplikaziotan, horietako asko petrolioaren deribatuak.



. Erretxina-pinu baten erretxinatzearen faseak eta azken produktua.



2- Beste batzuetatik datozen zerbitzuak

Mikologia



Zizen bilketa basoak eskaintzen duen zerbitzu ekosistemiko garrantzitsu bat da.

Basoko onddoak eta zizak batzea azken urteetan balio handia hartzen ari den jarduera bat da, bai bere funtzio sozialagatik eta bai bere funtzio ekonomikoagatik. Horregatik, bi alderdi bereizten dira: alde batetik, turismo mikologikoa, aisialdiari lotutako erabilerarekin; eta bestetik bilketa, helburu ekonomikoekin. Bi jarduerak guztiz bateragarriak dira elkarren artean eta gainerako baso-aprobetxamenduekin integratu behar dira. Jarduera horrek gizakiaren eta basoaren artean sortzen duen lotura onuragarria izango da bientzat: suteen kopurua jaitsiko da, basoa gehiago zainduko da, landa-biztanleria haziko da, eta abar.

Beste alde batetik, izaera komertziala duen ekoizpena dago; onddo eta boilurretan kontzentratzen da gehienbat, eta jatetxe eta dendei ematen die zerbitzua.

Fruituak

Badira basotik eskuratzen diren beste hainbat fruitu, eta horietako batzuk jarraian deskribatzen dira:

Pinaziak: Pinazia pinuetako pinaburuetatik datorren hazia da; zehazkiago, merkaturatzen den pinazia pinazi-pinutik (*Pinus pinea*) hartzen dena da. Elikagai gisa dituen propietate osasungarriak esker, balio handiko produktu bihurtu da dieta mediterraneoan.

Gaztaina: Gaztainondoak (*Castanea sativa*) ematen duen fruitua da, balio gastronomiko handiarekin.

Ezkurra: *Quercus* sp. generoaren (Haritza eta Artea) fruitu bereizgarria da. Bere erabilgarritasun nagusia abereentzako elikagaia izatea da. Adibidez: iberiar txerriarentzat, kalitate handiko okela eskaintzeko (ezkur-urdaiazpiko iberikoa).

Basa-fruituak: ahabiak, masustak, basa-marrubiak, etab. funtsezkoak dira basa-faunaren biodibertsitaterako, zeren animalia askok kontsumitzen baitituzte. Halaber, giza kontsumorako ere dira onuragarriak.



Basoko fruitu batzuen irudiak.



Sendabelarrak eta landare aromatikoak



Baoetatik hartzen diren landare aromatikoak eta sendabelarrak.

Basoa landare aromatikoen eta apaingarrien, sendabelarren, eta sukaldean espezie moduen erabiltzen landareen hornitzaile nagusia da (izpilikua, salbia, ezkaia, erromeroa, etab.).

Ehiza eta Arrantzza

Historiaurrean, gizakiek ehiza eta arrantzara jotzen zuten bizirik irauteko metodo gisa. Gaur egun, bai ehiza eta bai ibai-arrantza aisialdi- edo kirol-jardueratzat hartzen dira, neurri batean, eta legedi espezifikoaren arabera gauzatzen dira espezieen desagerpena eragozteko.

Gainera, badute lurraldea kudeatzeko funtzio garrantzitsu bat, populazioen kontrol zinegetikoa gauzatuz, eta horren bidez kalteak murrizten dituzte landa-jardunean; adibidez: basoberritze eta ortuetako kalteak, gaixotasunen transmisioa, eta abar.



Beste zerbitzu ekosistemiko bat ehiza eta ibai-arrantza dira.